



Azpeitiko Udala

Gaia: Azpeitiko Udaleko Udaltzaingoaren Zerbitzuko Agente plaza bat hautatzeko prozesuaren kudeaketa materiala egiteko Kudeaketa-gomendioa.

Kudeaketa-gomendio honen bidez Azpeitiko Udalak, gaur egun Lanpostu Zerrendan hutsik dagoen eta 36. kodea duen udaltzain postua hautatzeko prozedura Zumaiko Udalaren ardurapena uztea proposatu da.

Lanpostu hori 2025. urterako Eskaintza Publikoan aterako da, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua arabera (administrazio batek bere barneko baliabideekin bete ezin dituen eta aurrekontu-esleipena duten lanpostuak langile berriekin bete beharko dira, besteak beste lanpostu eskaintzaren bidez).

Toki-poliziak udalerriaren mendeko funtzionarioen kidegoak dira, eta udal bakoitzaren eskumena da horiek hautatzea eta kudeatzea. Udalei dagokie horiek osatzen dituzten pertsonak hautatzeko prozedurak deitzea, kudeatzea eta ebatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 69. artikulua ematen duen aukeraren kalterik gabe. (artikulu honek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari, hark onartu ondoren, toki-poliziako kidego eta zerbitzuetan sartzeko eta, hala badagokio, mugikortasun-agente gisa sartzeko hautaketa-prozeduretarako deialdiak batera egiteko aukera ematen du).

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, kudeaketa-gomendioaren mekanismoak, Udalarik aukera ematen dio plaza betetzeko hautaketa-prozesuari dagozkion jardura teknikoak edo materialak beste erakunde publiko baten esku uzteko, eskumenaren titulartasuna transferitu gabe. Eraginkortasun-arrazoiengatik edo horiek gauzatzeko baliabide egokirik ez dagoenean erabiltzen da, kasu honetan argudiatzen den bezala.

Bi administrazioen akordioa formalizatzeko, Udalbatzaren erabakia behar da, eta, gainera, Udalbatzako kideen gehiengo osoak hartu beharko du (47.2.h artikulua). Akordio hori hitzarmen baten bidez formalizatuko da, eta Kudeaketa gomendioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Azaldutakoa ikusita, aldeko txostena eman zaio Udalaren aldeko kudeaketa-gomendioa onartzeko proposamenari, Udaleko Lanpostuen Zerrendako 36. lanpostua hautatu eta betetzeko izapideak egiteko.

Azpeitian, 2025eko urtarrilaren 30ean
Udalaren idazkariak

